



# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

2025eko martxoak 7 · 1346 zenbakia

## 2MÓ 239€




erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak

## MULTIÓPTICAS

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez


[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)   

# Infomaitemindu →

Bidali 

**ALTA 747 444 777**

zenbakira eta jaso  
Gipuzkoa eta  
Foru Aldundiari  
buruzko informazio  
garrantzitsuena.



**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia



IZEN-EMATEA ZABALIK



EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA

## MINTEGIA

- Martxoak 25, asteartea
- 📍 SD Eibar-eko prentsa aretoan

**08:45** Materiala jaso.

**08:55** Ongietorria eta agurra.

**09:10** "Jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gida". Asier Basurto Arruti, Soziolinguistika Klusterra.

**10:00** "Euskararen aukerak eta erronkak adimen artifizialaren garaian".

Aitzol Astigarraga Pagoaga, Orai NLP zentroko koordinatzailea.

**10:50** "Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentoaren atxikipena eta pertsonen motibazioa". Arrate Illaro Etxebarria, Hizkuntza normalizazioaren teknikaria.

**11:40** ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).

**12:20** Kirolean eta kulturean, zer?

**12:25** "Euskararen ibilbidea SD Eibar-en". SD Eibarko ordezkariak.

**12:50** "Urak eginen du bide". Alex Aginagalde Lopez, Pantailak Euskaraz-eko bozeramailea.

**13:40** Hausnarketa-dinamika.

**13:55** Amaiera eta agurra.

 **eta kitto!**  
euskara elkarteak



# Jarraitu gaitzazu!

[www.etakitto.eu](http://www.etakitto.eu)



@etakitto



Astelehenan Miñan antzezlana jasoko du Coliseo antzokiak Antzerki Jardunaldien barruan. Ibrahima Baldek Amets Arzallusi ahoz kontatu eta honek idatziz jasotako istorioan oinarritzen da antzezlana, eta Mikel Kaye aktore emuarrak hartzen du parte bertan.

**eta kitto!**  
euskarako elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOAK

943 20 67 76

#### AZALA

Ana Aizpurua

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



(\*...eta kitto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

# Eskutitzak



# Hortik esanak

## Egogain Gerontologia Zentroko langileei esker onez

Joan den otsailaren 27an hil zen Jose Luis Lopez Ramosen senideok gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu Egogain Gerontologia Zentroko langileei, batez ere seigarren solairukoei, bertan igaro dituen urteetan harekiko izan duten tratu eta arreta bikainagatik. Profesionaltasuna, lana, zintzotasuna, ahalegina, adiskidetasuna, laguntza, maitasuna... esker oneko hitzak baino ez zaizkigu bururatzten euretako bakoitza aipatzean. Egoitzako zuzendaritzatik hasi eta azken langileraino, medikuek, erizainek, laguntzaileek, gizarte-langileek... guztiek merezi dute gure eskerrik beroena. Askotan kexatu eta kritikatzeko baino ez gara gogoratzen langile hauekin, baina beraien lana horren ondo egiten dutenean, eta egoitzan dauden nagusi guztiak hain ondo zaintzen dituztenean, gure esker ona azaltzea bidezkoa dela uste dugu. Lerro hauen bitartez jaso gure eskerrik beroena familia osoaren partez, bihotz-bihotzez.

**Jose Luis Lopez Ramosen familia**

Euskarazko hedabideek EAEko beste komunikabideek baino jarduera profesionalagoa eta feministagoa dute: Ustekokeria gutxiago dago euskarazkoetan. Horrez gain, proportzioan, emakumezkoen iturri gehiago erabiltzen dituzte euskarazko komunikabideetan. Ustekokoa erasotzailea izan daiteke; baina salatu den delitua gertatu egin da, bestela ez dago albisterik. Bestela ez da justizia administrazioa martxan jartzen. Jasotako datuen arabera, euskarazko hedabideetako albisteen %18,18tan “ustezko eraso” argitaratu zuten; eta EAEko hedabide erdaldunen %25,7k argitaratu zuten kontzeptu hori. Gainera, erdarazko hedabideetako albisteen %2k “ustezko biktima” aipatu zuten; euskarazkoetan, ez zen halakorik argitaratu.

**MARIA GOROSARRI, EHUKo ikertaria**

Europarrek inozoki uste bazuten AEB-etako lehentasunei men eginez onura geopolitiko handiak erdietsiko luketela, aurpegian jasotako ostikadak beste bide batzuk hartzera eraman ditzakete. Txinak lagundu diezaieke europarrei epe luzera begira duten benetako amesgaiztoari, Afrikako lehertze demografikoari, aurre egiten. 1950ean Europak Afrikako bizlanle kopurua bikoizten zuen; orain Afrika-koak bikoizten du Europakoa. 2100.ean sei aldiz handiago izango da. Afrikako ekonomiak ez badira garatzen, Europak olatua izango du gainean. Eta europarrek pentsatzen badute Trump bezalako agintaririk ez dituztela izango, eurena egin dute: Elon Musk ez da Europako eskuin muturreko alderdien alde egiten duen aberats bakarra.

**KISHORE MAHBUBANI, politologo singapuarra**

Kirol informatibo guztietan gaitzestu zituzten Realeko zalegoaren zati batek Raul Asenciori egindako kantu mehatxugarriak. Hala ere, atentzioa eman zuten aurkezleek ez aipatzea kantu horien zergatia; inor argitzera ausartzen ez zen tabu modukoa bihurtu zen izendatzen ez zen hori. Tele5-ko Lucia Taboada izan zen bakarra zergatia azaltzen: “Adin txikiko neska baten bideo sexualaren ustezko zabalkundea egoztega dago horren atzean”.

**MONICA PLANAS, Mundo Deportivo-ko zutabegilea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PERRA-HOTSA IZAN** → Arineketan irten, ospa egin. “Mutillak! Hemen dittuk guardia zibillak! Ha izan zan perra-hotsa, ahal ebanak ahal eban lekutik”.

**PERRETXIKO ASKO EGIN** → Perretxiko asko egon. “Ubitxako txabola inguruan, perretxiko asko gittzen zan gure eskolako denboran”.

# 1948

## Eibarko emakumeak tailerrean

Gure herriko industrializazioan emakumeek izandako garrantzia ezin daiteke ukatu, eta askok tailerretan egin zuten beharra. Argazkikoak Norma lantegiko beharginak dira. Beraiek ematen zioten pintura, kola ... bizikleten koadroari, baita urkilari ere.

**CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA**



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 7</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 8</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>DOMEKA 9</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 11</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>EGUAZTENA 12</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>EGUENA 13</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 14</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI**, 2025ean,  
Lekunberri (Isasi, 31)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Marisol Martinez Fuerte.**  
67 urte. 2025-02-27.
- **Jose Luis Lopez Ramos.**  
83 urte. 2025-02-27.
- **Nati Astoreka Goienetxea.**  
94 urte. 2025-02-28.
- **Jesus Navarrete Blanco.**  
89 urte. 2025-03-01.
- **Tomas Etxaluze Egotxeaga.**  
85 urte. 2025-03-03.

# Edukiontzi marroia zabaltzeko txartel elektronikoa beharko dugu

Debarreneko Mankomunitateak hondakin organikoen edukiontzi marroietarako irekitze elektronikoa sistema ezarriko du hilabete honetan. Neurri horrekin gure eskualdean bilketa selektiboaren eraginkortasuna handitzea eta hondakin organikoen kudeaketa hobetzea lortu nahi dute. Martxotik aurrera, edukiontziak erabiltzeko, herritarrek txartel elektronikoa bat edo telefono mugikorreko aplikazio bat erabili beharko dute.

Mankomunitateak emandako datuen arabera, Debarreneko hondakin-bilketa selektiboaren tasa %53,2koa da gaur egun: “Ekonomia Zirkularrerako Hondakinen eta Lurzoruen Legeak %55eko gutxieneko tasa ezartzen du 2025erako, eta %60koa 2030erako. Helburu horiek lortzeko, eta hondakin organikoen edukiontziaren nahasteak saihesteko, sistema hau ezarriko dugu, hondakinak modu egokiagoan bereizteko eta haien jarraipena errazteko”, adierazi dute.

Horrela, biorresiduen bilketa eraginkorragoa izan dadin, edukiontzi marroiak zabaltzeko sistema elektronikoa jarriko da martxan. Edukiontzi horiek erabiltzeko, herritarrek txartel elektronikoa bat, edo ‘Ireki’ izeneko aplikazioa erabili beharko dute. Mankomunitatetik azaldu digutenez, “poltsa biodegradagarriak lortzeko txartela dagoeneko erabiltzen dutenek etxean jasoko dute txartel berria. Etxean txartelak jasotzen ez dutenek, berriz, euren udalerriko erabiltzaileen arretarako bulegoetan (Eibarren, Pegoran) jaso beharko dute. Horrekin batera, edukiontziak irekitzeko beste aukera bat ‘Ireki’ aplikazioaren bidez QR kodea eskaneatzea izango da. Sistema martxan jartzen denean, orain arteko txartelak baliogabetuko dira, eta ezingo dira erabili”.

Bestalde, sistema berrira egokitzea errazteko, Mankomunitateak “Birziklatzea garbi jokatzea da. Erabili txartel marroia” izeneko kanpaina abiatu du, eskual-



**Martxoaren 24tik aurrera derrigorrez erabili beharko da txartel berria edo mugikorreko aplikazioa, hondakin organikoak edukiontzi marroian bota ahal izateko.** SILBIA HERNANDEZ

deko erakunde eta kirolarien laguntzarekin, eta hainbat ekintza aurreikusitakoak dira: eskualdeko etxebizitzetara informazio-gutunak bidaltzea; herritarrentzako arreta-gune eta informazio-karpak jartzea, txartela jasotzeko eta zalantzak argitzeko; sare sozialen bidezko kanpaina bat abiatzea, sistema berriari buruzko informazio zehatza zabaltzeko; eta arreta-telefonoa martxan jartzea (629 031 252), herritarren kontsultak erantzuteko.

## Eibarren tasa bereizia ezarriko da

Aipatutakoarekin batera, Eibarren hondakinen kudeaketarako tasa bereizia ezarriko dute, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioan oinarrituta. Sistema berria ezartzeko kronograma ere zehaztu dute: Eibarren martxoaren 24tik aurrera derrigorrezkoa izango da txartela edukiontzi marroiak erabili ahal izateko. Sistema berria lehenbailehen martxan ipintzea ahalbidetzeko, bilketa-guneak ipiniko dituzte: martxoaren 10etik 15era eta martxoaren 17tik 22ra Untzagako jubilatuen etxean egongo dira (Untzaga Plaza 1A). Arretarako ordutegia hau izango da: astelehenetik barixakura, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara.



## Gure Esku ekimenak "Herri libre bat" kanpaina aurkeztuko du

Martxoaren 11n, martitzena, Arrate Kultur Elkarteke lokaletan egingo da Gure Eskuren "Herri libre bat" kanpainaren aurkezpena. Batzarrak 18:30ean hasiko da eta herritar guztiak gonbidatuta daude. Gure Eskutik esan dutenez, "garai bereziak bizitzen ari garen honetan berri elkartzea dagokigu, besteak beste, ekainaren 7an Bilboko kaleak betetzea izango baita gure erronka nagusia. Horretarako herri eta eskualde desberdinetan herri batzordeak aktibatzen gabilta. Hortaz, animatu eta gerturatu Eibarren egingo dugun batzarrera".

## Martxoaren 19an egingo du ...eta kitto! Euskara Elkarrekin Urteko Batzarra

San Jose egunerako deitu du ...eta kitto! Euskara Elkarrekin Urteko Batzar Nagusia elkartearen egoitzan (Urkizu 11, solairuartera). Ohikoaren aurretik, baina, ez ohikoa egingo du, Estatutuetan hainbat aldaketa proposatu nahi baitizkie elkarteak bazkideei. Ez ohikoaren lehenengo deialdia 18:00etan izango da; bazkideen erdia baino gutxiago agertuz gero, 18:30ean izango da bigarrena.

Ohiko batzarreko lehenengo deialdia, berriz, 18:45ean izango da; bazkideen erditik gora ez bada bertaratzen, handik ordu erdira egingo da bigarren deialdia, hau da, 19:15ean. Gai-zerrenda hauxe izango da: 2024ko gestio-balantzea; 2025erako egitasmoak, bazkidekuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak, eta zuzendaritza berriaren hautaketa eta funtzionamendua.



## Iturburu ikastetxearen baratzean sekulako triskantza egin dutela salatu dute

Ikastetxetik salatu dutenez, eguazten goizean klasera bueltatu zirenean, baratza guztiz hondatuta aurkitu zuten: "Ez dirudi hau guzti hau animaliek egin dutenik, izan ere badakigu basurde, orkatz... eta bestelako lau hanketako animaliek apurtzeko duten gaitasuna. Baina, badirudi, hemen bi hanketakoak izan daitezkeela halako balentriaren egileak. Eta, hala balitz, jakin dezatela 488 haurren

lana suntsitu dutela. Zertarako? Zergatik? Seguraski honen egileek ez dute erantzuten jakingo. Negutegia apurru, ilarren landarak eta egitura kaltetu, aza, uraza, eta bestelako barazkiak tokitik atera edo apurru... 'bandalismo' hutsa izan da". Ikas komunitate osoari egin dioten kaltea berriz ez errepikatzea espero dute: "Ikasle, irakasle eta Ikastolako langile guztien itxaropena eta nahia da".



## Kriminalitatearen hazkunderari aurre egiteko neurriak hartuko ditu Udalak

Eibarren azken urtean eman den kriminalitatearen hazkunderaren inguruko azalpenak eman zituzten atzo Jon Iraola alkateak, Julen Saldias Udaltzaingoaren buruak eta Guillermo Argente Udaltzaingoaren buruordeak. “Eibarren errealtate berezia ematen da”, alkatearen hitzetan. Izan ere, delitu gehienetan beherakada egon den arren, lapurreta txikitzen eta indarra erabiliz egindako lapurretetan demaseko hazkundera egon da.

Lapurreta txikiei dagokienez, 2024an 436 egin dira (2023an 376 izan ziren), %16ko igoera egon delarik. Etxebizitzetan, establezimenduetan eta bestelako instalazioetan indarra erabiliz egindako lapurretei dagokienez, 2024an 270 lapurreta egin ziren. Etxebizitzetako, gara-jeetako eta trastelekuetako lapurretak direla-eta, 199 intzidentzia egon ziren (2023an 123 izan ziren), horien %85 garaje eta trastelekuetan (175 guztira), eta %15 etxebizitzetan. Horrez gain, iazko urtearekin alderatuta, etxebizitzetan egindako lapurretak %17 jaitسي dira (2023an 35 izan ziren eta 2024an 24).

Bestelako delituei dagokienez,

2024an ez zen inolako hilketarik gertatu Eibarren, lesio-delituak %23,7 jaitسي ziren, 38tik 29ra; sexu-askatasunaren aurkako delituak %50, 18tik 9ra; eta indarkeriaz eta intimidazioz egindako 20 lapurreta gertatu ziren, 2023ko kopuru bera. Era berean, ibilgailuetan egindako lapurretek %75eko beherakada izan zuten 2024an, 2023an baino %12 gutxiago, eta droga-trafikoagatiko delituek %6 egin zuten behera, 2023an 17 izatetik 2024an 16 izatera igaro baitziren. Ziberkriminalitatea ere %6,5 jaitسي zen.

### Hartutako neurriak

Iraolak testuinguruan jarri nahi izan ditu emandako datuak, Eibarko datu orokorrekin bilakaera positiboa adierazten dutela azpimarratuz. Dena dela, zenbait neurri hartu dituzte aipatutako arazoari aurre egiteko. Batetik, trafiko-kamerak jarriko dituzte herriaren sarrera eta irteeretan, kalean dabilzan Udaltzainen presentzia indartuko dute, lau auzozain jarriko dituzte, salaketak-jasotzeko zerbitzua jarriko du Udaltzaingoak eta Ertzaintzarekin lankidetzat indartuko dute.



## Bi hitzaldi emango ditu Ertzaintzak Beheko Tokia nagusien zentroan

Datozen egunotan bi hitzaldi egingo dituzte Beheko Tokia nagusien zentroan. Lehena martxoaren 14an izango da (barixakua), 17:00etan, eta lapurreta eta iruzurren inguruan arituko dira berbetan Ertzaintzatik joango diren hizlariak. Bigarren hitzaldia ere ertzainek emango dute, martxoaren 27an, 17:00etan. Egun horretarako gaia bide-heziketa izango da.



## 40 urte beteko dituztenen jairako izen-ematea

Maiatzaren 17an ospatuko dute kinto-jaia urte horretan jaiotako eibartarrek, egun osorako egitarauarekin: “Bazkari aurreko piko-teoa, argazkia, Unzaga Plaza hotolean bazkaria, eta bazkal osteko txaranga-poteoa”. Izena emateko azken eguna apirilaren 11a izango da, eta joan nahi duenak 95 euro sartu beharko ditu kontu korrante honetan, izen-abizenak azalduta: ES 8801 8252 9727 0202753523.



# Kolore eta gustu guztiak



ARGAZKIAK



ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA/  
SILBIA HERNANDEZ

BIDEOAK







# Mobilizazioetara gehitzeko deia egin du Matraka gazte talde feministak

"Antifaxismoa feminista izango da, edo ez da izango" goiburua aukeratu dute Euskal Herriko Gazte Feministek Martxoaren 8aren harira. Lelo horri jarraituz, Matraka Eibarko gazte talde feministak egun osoko egitaraua antolatu du gure herrian. Beste urteetan bezala, zapatuan deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dute.



**E**ibarko programazioa eguerdian hasiko da Kulturaren egungo den "Eztabaida feminista: Bientzia areagotzen ari da, zer dugu esateko?" solasaldiarekin. Geroago, 14:30ean, bazkari autogestionatua egingo dute Untzagako arkupeetan. Eguneko ekitaldi nagusia, manifestazioa, 19:00etan abiatuko da Untzagatik; eta, manifa amaitzearekin, Eibarko kaleetatik barrena egingo den Marikotekarekin borobilduko da aurtengo egitaraua.

Martxoaren 8a dela eta, Euskal Herriko Gazte Feministek egingen duten irakurketa duzue jarraian:

*Gogor kolpatzen gaitu krisi anizkoitzak, pobrezia orokortua, indarkeria matxista, krisi ekosoziala... Migrazio politika bortitzak, pribatizazioa, familia heterosexuala eta emakumeen lan karga bikoitzak dira nagusi. Krisi testuinguru honetan, faxismoaren oldarraldiaren lekuko gara. Oldarraldi honek kapitalismo kolonial patriarkala indarrez inplantatu nahi du, bere adierazpiderik bortitzena bilakatuz.*

*Erreakzio faxista patriarkala ere bada, gizon zurien jardun eta ideologia den heinean. Hala, modu berezitan eragiten digu neska, bollera eta trans gazteoi. Zapalkuntzen adibide dira sare sozialetako erreakzio misoginoak, borroka feminista arazo sozialen kausa gisa identifikatzeko joerak edo gure borroka kriminalizatzen duten adierazpenak. Horregatik, borroka propiotik artikulatzen dugu faxismoaren aurkako borroka.*





*Izan ere, borroka antifaxista, feminismo autonomotik ere aurrera eramatea ezinbestekoa da, gatazka eta garai-penak ez ditzaten borroka-eremu maskulinizatuek monopolizatu. Antifaxismoak ere izan baitezake iruditegi eta logika patriarkala.*

*Aldi berean, Gazte Feministok krisi sistemikoetan sortzen den ezinegona emantzipazio feministarantz artikulatzen dihardugu, eta, gurean, Euskal Herri feministaren eraikuntzaren forma berezitua hartzen du. Bide horretan, Euskal Herriko Gazte Feministok antolatuta gaude auzo, herri, unibertsitate eta beste zenbait asanbladatan. Feminismoa hedatzen gabiltza eta borroka honek fruituak dakartza bueltan. Zenbaitzuen pribilegioak tentsionatu ditugu, horiek zalantzan jartzearaino; espazio maskulinizatuetan hegemonia lehiatu dugu, gizonen erreakzionatzeraino. Horretan berresten gara, faxismoa desagertzeko borroka kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialismoa desagertzeko borrokarekin batera baitoa. Faxismoari aurre egiteko modu zuzenetako bat feminista izatea bera baita.*

*Antifaxismoa feminista izango da, edo ez da izango!*

*Batu martxoaren 8an EHMFAk deitutako mobilizazioetara!*

*Gora borroka feminista!*

## Emakume bakoitzaren sormen-ahalmena koadro batean irudikatzen



Martxoaren 8ko lantaldeak antolatuta, datorren astean emakumeei zuzendutako sormen-tailerra emango du Maite Arriaga Arrizabalaga artista eibartarrak. Bi egunetan izango da tailerra, martitzen eta eguaztenean (martxoak 11 eta 12), 09:00etatik 13:00etara Arrate Kultur Elkarteetan. Ondoren, parte hartzen dutenek beraien lanak erakutsiko dituzte Topalekuan, martxoaren 14tik 30era bitartean. Azken orduan norbait animatuz gero, Andretxean eman dezake izena (andretxea@eibar.eus helbidera idatzi edo 943543938 / 688853440 telefono zenbakira deitu daiteke).

Tailerrean parte hartzera animatzen diren emakumeei beraien sormena lantzeko aukera izango dute, "askatasun osoz". Irakaslea Maite Arriaga izango da eta, berak esan digunez, "zerotik hasita, bakoitzak koadro bat sortuko du, horretarako bere irudimena erabilita. Hasteko pauso batzuk emango dizkiet nik, mihise zuria parean izateak beldurra ematen du-eta. Hortik aurrera, bakoitzak berea margotuko du. Jolas moduko bat izango da, eta bakoitzari lan bakarra, pertsonala aterako zaio. Berdin dio figuratiboa edo abstraktua izan". Azaldu digunez, "ez da marrazten jakin behar, edozein emakumek eman dezake izena. Garrantzitsuena norberak bere irudimenari jarraitzea da eta, lana amaitzean, emaitzarekin pozik egotea, koadroari begiratu eta harro sentitzea".



**Microsoft 365-i etekinik handiena atera, aditu baten asteroko bisitarekin**

Aplikazio pertsonalizatuen garapena, automatizazioa, aholkularitza, prestakuntza eta askoz gehiago

**658 992 413 - laguntza@jarmit.com** 

# “Zaintzaren ikuspegi integral batetik ekingo dion arkitektura erakundetu bat aldarrikatzen dugu”

MIREN ARANGUREN ETXARTE • Soziologoa



Astelehenean eman zitzaion hasiera Martxoaren 8ko egitarauari Miren Aranguren Etxarteren hitzaldiarekin. Emagin elkarteko soziologoak zaintza sistema publiko komunitarioaren inguruan egin zuen berba ikuspuntu feminista batetik. Gainera, bere azalpenak entzun ondoren, Andretxean elkartu ziren lagunekin solasaldia sortu zen.

**Z**aintza izan da eta da gaur egun ere mugimendu feministaren hausnarketa puntu garrantzitsuetakoa bat. Horren inguruan mobilizatu dira azken urteotan eta aurrean ere hori izango da aurtengo Martxoaren 8ko ardatzetako bat, Eibarren erabiliko den goiburua ‘Bizitza duinak guztiontzat eta edonon’ izango delarik.

## Zertaz ari gara zaintza sistema publiko komunitarioaz berba egiten dugunean?

Batetik, azkenengo urteetan Euskal Herriko mugimendu feministak egin duen aldarrikapena da, gaur egun dugun antolaketa bidegabeari aurre egiteko. Sistema bat aldarrikatzen da, gaur egun ez dugulako zaintzari ikuspegi integral batetik begiratzen dion sistema bat eta bakarra. Ditugun sistemak, egiturak eta abarrak artxipelago bat osatzen duten irla solteak dira, baina ez dira sistema bat bere horretan, ez bada menpekotasunari arreta egiteko gizarte zerbitzuen esparru hori. Osakidetzan daude parte batzuk, hezkuntzan beste batzuk, gizarte zerbitzuetan ere, beste parte batzuk ez dira estaltzen, hirigintzan ere badaude parte batzuk... Oso ikuspegi sakabanatua da. Beraz, ikuspegi integral batetik ekingo dion arkitektura erakundetu bat aldarrikatzen dugu.

Bestalde, publiko komunitarioaren kontu hori esaten dugunean, edukiz janzen ari garen aldarrikapen bat dela esan beharra dago. Emaginentzan zerbait inspiratzailea da, hainbat aukera ematen dizkigulako: publikoaren ikuspegi tradizioaletik harago pentsatzeko; zer nolako publikoa nahi dugun hausnartzeko; demokratizazioan sakontzeko; eta komunitatean gaur gaurkoz ez zaintzearen pribilegioa duten gizonak, belaunaldi gazteagoak eta horiek guztiak interpelatzeko, besteak beste. Gaur egun dugun publikoaren ikuspegi itxia gaingaitzen duen ikuspegia ematen digu. Hibridatze horiek (publiko, kooperatibo, komunitario...) gizarte honen konplexutasunei eta dauzkagun erronkei aurre egiteko aukerak ematen dizkigute.

## Bide horretan, zein izan beharko litzateke administrazio publikoaren papera?

Duda barik, administrazio publikoari dagokion ardura hartzea eskatzen diogu. Ez dugu esaten komunitatea gauza batzuek arduratuko dela eta administrazioa beste batzuek. Ez, ez gara horretaz berba egiten ari, baizik eta honek eskatzen duela prozesu bat non ehun soziala artikulatuko den. Merkatu pribatua kanpoan lagako dugu neurri handi batean. Ez ditugu aliantza publiko-pribatuak nahi, publiko-komunitarioak baizik.



Miren Arangurenek astelehenean eskaini zuen hitzaldia Andretxean. EKHI BELAR

### **Zergatik da garrantzitsua zaintzaren gaia ikuspegi feministatik lantzea?**

Zaintzaren eremua emakumeoi gehien desjabetzen zaigun esparrua delako. Horren zama eta ardura emakumeoi egotzi zaigun sistema patriarkalean bizi gara. Orduan, batetik, emakumeoi egotzen zaigun rol edo funtzioa da eta aldaketarako palanka oso potentea da. Eta bestetik, kapitalaren eta irabazi asmoaren logika lehenesten duen sistema batean bizitza eta hori ahalbidetzen guztia erdigunean jartzeko aukera ematen digu, eta hori ere beste palanka indartsua da. Batzuek zaintza deitzen diote, beste batzuek beste modu batean (elkartasuna, adibidez), kontzeptu asko daude, baina guretzat bizitzak erdigunean jartzeko palanka indartsua da. Beraz, zaintzek ardatzen duten gizartea eraikiko bagenu, beste harreman bat eraikiko genuke mundu honetan bizi garen izaki bizidun guztion artean.

### **Zeintzuk dira zaintzaren inguruan Euskal Herrian dauden arazo nagusienak?**

Batetik, lehen esan bezala, antolaketa anabasa da. Bestalde, bidegabekia da, erabat feminizatua dagoelako. Emakumeok arduratzen gara horretaz eta horrek esan nahi du administrazio publikoa oso gauza gutxitaz arduratzen dela, gizonak ez dutela parte hartzen antolaketa eta

egiten dugun ia lan guztia doan egiten dugula (maitasunagatik, derrigortasunagatik, lanerako beste aukerarik ez dugulako...). Familia erdigunean jartzen duen sistema da. Familia arduratzen da inguruko zaintzaz eta familiak huts egiten badu, agian orduan artikulatuko dira beste mekanismo batzuk administrazioan, baina ordura arte espero da familia arduratzea hori egiteaz, eta hor barruan badakigu zeintzuk arduratuko diren. Gainera, geroz eta arrazializatuagoa da eta horrek klase konponente handia du. Emakume pobre eta migratuak dira historikoki zaintza lanez derrigor arduratu behar izan direnak; izan landa-guneetatik hiriguneetara joaten zirelako (lehen Euskal Herrian gertatu zen bezala) edo, gaur egun gertatzen den moduan, txirotu ditugun beste herrialde batzuetatik etorri direlako. Horrez gain, zaintza pribatizatuta dago, etxeko eremura mugatzen delako edo etxeko eremu hori lehenesten delako, baina geroz eta merkantilizatuagoa dagoelako ere bai. Beraz, demaseko injustiziak gertatzen diren eremua dela iruditzen zaigu eta ikusi besterik ez dago zaintzaile profesionalen lan baldintzak nolakoak diren, zaintza lanez zein prestigio gutxi duten, etxeko zaintzetan dauden emakume internen egoera zein den... Urgentziarekin artatu beharko genukeen egoera da. Gainera, menpe-

BIDEOA



kotasunean fokoa jarrita, Euskal Herriko adineko eta menpekotasuna garatu duten lagun asko subjektuak izango ez balira bezala tratatuak dira, erabakimenik gabe. Beraz, zeharo aldatu behar den eredia da.

### **Nolako pausoak eman beharko lirateke zaintza sistema publiko komunitarioa lortzeko bidean?**

Tokiko politiketan eragin nahian gabiltza, beraz, herrietan ari gara lanean. Diagnostikoak egin ditugu egoera zehatz eta kokatuak ezagutzeko, eta oso aberasgarria da jakitea nola antolatzen diren eta herrietan zein baliabide dauden. Bestalde, orain arte asko atenditu ez dugun eremu bat artikulatu nahi dugu. Izan ere, inoiz ez gara joan zaintzaileengana ezer galdetzera, ez politikariak ez ia inor. Orduan, eurekin egote hutsa koso aberatsa dihardu izaten. Bestalde, diagnostiko horretatik prozesuak artikulatzen ditugu, ahal den neurrian prozesu parte-hartzaileak, ikusteko komunitate edo udal horrek nondik nahi duen hasi gauzak aldatzen. Aldaketarako bost eragin eremu identifikatu ditugu: arkitekturak edo egiturak osatzea (udaletan ez daude zaintza mahaiak edo horrelakoak), zaintzaileen lan- eta bizi-baldintzak



hobetzeko prozesuak aktibatzea (hitzarmen kolektiboetan eragitea, padroiari edo etxebizitzari buruz hitz egitea...), artikulazio komunitarioa sustatzea, arreta ereduari buelta bat ematea eta zerbitzuak hobetzea, eta zaintzen duten guneak eta lurraldeak sortzeko prozesuak martxan jartzea.







MADDI ALBERDI SAN MARTIN

## M8 Euskal Herritik

Memoriarik gabeko herria historia errepikatzen kondentatuta omen dago. Badaezpada, datorren Martxoaren 8rako, memoria eta hausnarketa ariketa egin dezagun, etorkizuna eraiki ahal izateko.

Ez dakigu jatorri zehatza, gertaera-kate batek jarri zuen emakume langileen egutegian egun hau: 1857ko grebalariak New Yorken, 1917an iraultza Petrogradon, konferentziak 1921ean Moskun eta 1910ean Clara Zetkinen Kopenhagen... Hala ere, bada ezagutzen dugun datu bat: 1975ean Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna” izendatu zuen, klase aldagaia ikusezin eginez.

Kontua da ez dela ikusezin bihurtu nahi den aldagai bakarra. Kezka sortzen dit “emakumeen egunean” elkarri opariak egiteak, baina baita AEBetan, Madrilan edo Parisen irakur daitezkeen lelo berberak behin eta berriz Euskal Herrian, eta Eibarren, irakurtzeak ere. Izan ere, ikerketek erakutsi dute nazioak, generoak eta sexualitateak elkar eragiten dutela, eta, beraz, ezin direla modu isolatuan ulertu. Hala ere, hiru horien oinarrian, botere-harremana nagusitzen da; hau da, elkar eragiten duten modu berean, nazio batek, genero batek eta sexualitate batek menderatzen dute. Horregatik, Euskal Herrian ezin da Martxoaren 8a nazio gatazkatik kanpo ulertu.

Borroka feministak tokiko gisa ulertu behar dira, ezaugarri espezifiko eta historikoekin, nahiz eta, aldi berean, nazioartekoak ere izan, etengabeko dialogoan kanpoko pentsamendu eta mugimenduekin. Euskal Herrian 1977an antolatu zen lehen aldiz Martxoaren 8a. Ordutik, ugari izan dira mobilizazioak, eztabaidak eta elkartasun ekintzak: jardunaldiak, gorputz-burujabetza, NATOri ez, presoekin elkartasuna, instituzioekin gatazkak, etxeko lanei intsumisioa, emakumeak alardean, 2008ko pilotakadak eta iraultza feministaren aldarriak non-nahi. Eibarren ere ez dira gutxi izan kalera ateratako emakume langileen aldarriak. Gogora ditzagun denak eta sor ditzagun berriak. Bete ditzagun kaleak aldarriz, nork bere tokitik, memoriatik eta elkarrekin!

**“Eibarren ere ez dira gutxi izan kalera ateratako emakume langileen aldarriak. Gogora ditzagun denak eta sor ditzagun berriak”**



OIHANE ARTETXE GONZALEZ

INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK DIRAUTEN AMA EUSKALDUNAK



AMAÏUR DIEZ FRIERA

## Emakumeen borroka indarrean jarraitzen duen sistema patriarkal eta kapitalista batean

Gaur egun, indarkeria eta kontrol moduek indarrean jarraitzen dute; baina, eboluzio baten bitartez, gauzak sotilago eta nomenklatura berriekin sartzen dizkigute. Adibidez, lehen esplotazioetat har zitekeena orain onargarriagoak diruditen terminoen azpian maskaritzen da: OnlyFansen kontu bat izatea “diru errazaren” modu bat bezala aurkezten da, alokairuko sabelak eta haurtxoen trafikoa “haurdunaldi subrogatu” terminoaren pean mozorrotzen diren bitartean. Prostituzioa, bestalde, “sexu-lan” gisa definitzen da... eta horrela lortu dute kapitalismoak eta patriarkatuak emakumeak eta haurrak produkzio-sistemaren barruko engranje huts bihurtzea, transakzio ekonomiko batera murriztuz haien balioa.

Gainera, politika publikoak, askotan, modu baztertzaillean diseinatu dira, sektore pribilegiatu batzuei soilik mesede eginez, eta botere-egitura zaharkituak indartuz, desberdintasuna iraunaraziz. Ongizate-sistema faltsu bat agertzen da, pertsonen garapen pertsonala eta profesionala sustatu beharrean, herritarren benetako beharrei heltzen ez dieten transferentzia ekonomikoak eskaintzera mugatzen dena.

Logika asistentzialista horrek iraute hutsari ematen dio lehenetsuna, ahalduntzea eta aukera esanguratsuak eskuratzea alde batera utzita. Pribilegioak eskema tradizioaletara egokitzen direnentzat gordetzen dira oraindik ere, eta beste modu batean bizitzen saiatzen diren emakumeek oztopo izugarrietatik nabigatu behar dute. Gainera, erronka horiekin batera, epaiketak eta gaitzespen-begiradak izaten dira, esperientzien aniztasuna sustatu beharrean, status quo-a sendotzea eta

edozein aldaketa saiakera deusestatzea bilatzen dutenak. Izan ere, emakumeok egiten dugun guttia, gizonen gozamenerako eta onurarako ez bada, gogaitu eta haserretzen du gizartean.

Oraindik asko dago aldarrikatzeko eta lortzeko, emakumeok gaur egun egin nahi duguna eta lehen egin behar genuena uztartzen jarraitzen dugun une honetan. Hau da, gero eta gehiago dira karrera profesional izugarriak dituzten emakumeak, baina zaintza gehienak jasaten jarraitzen dugu, eta, beraz, lan bikoitza egiten dugu, eta horrek izugarri zailtzen du gure garapen profesionala.

Berdintasunaren eta kontziliazioaren motorra saldu ziguten, baina iruzur bat izan da. Izan ere, ideia horren pean aitatasun-baimenak baino ez dira eguneratu, eta gure baimenak 80ko hamar-kadatik daude luzatu gabe, eta horrek egiturazko desabantaila egoeran uzten gaitu, gure gaineko lan karga betiketuz, kontuan hartzen badugu gu garela haurdunaldia, erditzea, erditu ostekoa, edoskitzea... bizitzen dugunak gure gorputzean.

Gainera, kontzeptu horren pean sortu dira zaintza partekatua ere, askotan berrikuspen egokirik gabe, eta hori arriskutsua izan daiteke, ez baitute beti kontuan hartzen adingabearen interes gorena, ezta familia dinamiken errealitatea ere.

Hori gutxi balitz, eta emakume askorentzat kontziliazioa zaila bada, ama bakarrentzat ez da existitzen zuzenean. Dena bi gurasoko eredu baterako diseinatuta dago, gero eta emakume gehiagok bakarrik hazten dute, eta benetako laguntzarik eskaintzen ez dien sistema bati aurre egin behar diote.

Eta jakin badakigu, lan merkatuaren eremuan, gaur egun oraindik ere baldintza okerragoak ditugula, soldata txikiagoa, eta emakumeek gehien egiten dituzten lanbideek gizonek betetzen dituztenek baino balorazio txikiagoa dute. Ondorioz, oso gutxi zaintzen gaituen sistema batean aurkitzen gara.

Baina, eguneroko erresistentzia eta sufrimendu horretatik ustekabeko indar bat sortu da: justizia nahi sakon bat, ezin dena ezabatu, ez bahiketekin, ez mehatxuekin, ez indarkeria instituzional baten pisuarekin ere. Izan ere, urte ilunetan ere, emakumeek aurrera egiteko moduak aurkitu dituzte, beren istorioak eta ondoan borrokatu zirenenak bizirik mantenduz.

Narratiba horiek amametatik bilobetara igaro dira, ametatik alabetara, eta ondare bat ehundu dute, non belaunaldi bakoitzak ikasten duen justua denaren aldeko borroka ez dela amets idealista bat, premiazko behar bat baizik.

Eta gaur, oihartzun hori inoiz baino ozenago entzuten da. Lehen isiltasunean hil ziren ahotsak kaleetan entzuten dira orain, baita sare sozialetan eta komunikabideetan ere. #MeToo, #Cuéntalo #SeAcabó #Rompeelsilencio... bezalako mugimenduak, forma modernoa izan arren, borroka ibilbide bati jarraitzen dion erresistentziaren lekuko gisa azaleratzen dira. Jatorri eta adin guztietako emakumeak dira, munduan zehar dabilen justiziaren aldeko aldarrian batutakoak. Elkartzan ari gara, tribua sortzen, egin diguten guztia seinatzen eta kontatzen! Bortxatzaileak inguratzen hasiak dira eta zaldunen ituna apurtzen hasia da. Institutuetan, fabriketan, unibertsitateetan... emakumeak antolatzen hasi diren bezala, honek ez du atzera bueltarik. Gure amonek bezala, badakigu gure bizitzek eta gure askatasunak ez dutela kontrolatu, esplotatu eta gutxietsiko gaituen sistema baten aginduen mende egon behar.

Kontatzen eta partekatzen diren istorioen bidez, isilean eutsi ziotenen oihartzuna oihi unibertsal bihurtzen da. Haurren eta emakumeen aurkako desberdintasuna eta indarkeria ez dira banakako arazoak, historian zehar zoritxarrez izan diren egitura politiko eta sozialak baizik, eta, nolabait, milaka milioiren bizitza baldintzatzen dutenak.

Hala ere, egiturazko arazoa denez, aldatu ere egin daiteke. Mendeetan zapaltzeko balio izan duten legeak, ohiturak eta erakundeak gizarte

**“M8 honetan gogoratu behar dugu emakume eta neska askoren borrokari esker lorpen asko lortu ditugula, eta gure aurkako indarkeria oraindik ere oso presente dagoela”**

justuago bat eraikitzeko tresna bihur daitezke. Horregatik, oroitzapenak eta beren istorioak kontatzeko prest dauden emakumeak dauden bitartean, aldaketarako itxaropenak bizirik iraugo du. Gure amamek isilean hasi zutena gero eta ozenago entzuten den ereserki kolektibo bihurtzen da gaur egun.

M8 honetan gogoratu behar dugu haur eta emakume askoren borrokari esker lorpen asko lortu ditugula, eta gure aurkako indarkeria oraindik ere oso presente dagoela. Hori dela eta, ez du ospakizun eguna izan behar, purple whasing erabiltzen dutenek eta, ondoren, berriro biktimizatzeko eta gu eta gure haurrak babesteko neurri eraginkorrik ez aplikatzeko erabiltzen duten erakunde eta enpresa handiekiko aldarrikapen eta kritika eguna izan behar du.

Baina M8a borroka feminista bultzatu zuten emakume handien omenezko eguna ere izan behar da. Gero eta gehiago urruntzen ari gara ondoko emakumeari buruz erakutsi diguten ikuspegi patriarkal eta kapitalista horretatik, etsai edo kompetentzia gisa, eta gero eta gehiago ikusten dugu geure burua kide gisa, komunitate gisa, horrela sorore izaten ikasiz. Elkartzan garenean, sentitzen garenean, entzuten dugunean eta elkarri eusten diogunean, denok dakigu zer gertatzen ari den eta zer suposatzen digun emakume langileak izateak. Ildo horretatik jarraitzen dugu, eta martxoaren 8 honetan entzun gaitzatel denok hain berriki ikasi duguna oihukatzen: emakumeek bakarrik salba ditzakete emakumeak.

**EMAKUME ALTZA! HASI DA IRAULTZA!**

## Hypermotion Ligako SD Eibar-ek aurkari zailak izango ditu Ipuruan martxoan

Sailkapenean eibartarrendandik ihes eginda, igoerako postuen borrokan sartutako Almeria eta Huesca jasoko ditu hilabete honetan Ipuruan Beñat San Joseren taldeak. Hori dela eta, partidu horiei begira 2x1 pack-a sortu du SD Eibarko zuzendaritzak. Promozio horretan gaurko UD Almeriaren aurkako partidua eta martxoaren 23an SD Huescaren kontrakoa sartuko dira; zaletuen laguntza ere ezinbestekoa izango dutelako armaginek neurketak aurrera ateratzeko.



## “Zazpi” pelikula hilaren 13an Mendi Jardunaldietan

Datorren asteko eguenean, hilaren 13an, Mikel Lizarralde eibartarrak egindako 37 minutuko filma ikusteko aukera izango dugu Coliseo antzokian doan. Horrez gain, egilearen hitzaldia ere izango da Jardunaldien barruan, “pelikula egiteko prozesua ezagutzeko eta Mikelen motibazioetan eta bizi-penetan sakontzeko solasaldia-ekin batera”, hori guztia Mikel Larreategik gidatuta. Ekitaldi berean “Baietz ehun aldiz” erronkako lorpenak ere errekonozituko dira, “Deporren mendeurrenari amaiera emateko, iaz mendi berera 100 aldiz igotzea lortu dutenei esker ona eta sariak emateko aprobeztatuz”.

## SD Eibarko filialari inork ezin dio eutsi

Azken jardunaldian ere 2. RFEF mailako bigarren multzoko liderak jakin izan zuen Unben UD Logroñesi irabazten. Denboraldi ha-



sierako pronostikoetan Errioxako hiriburuko taldea faboritoen artean bazegoen ere, oraingoan SD Eibarko lehen taldea Errege txapelketatik kanporatzearekin konformatu behar da (1. Mailako Girona ere gaingitu zuen eta Athletic-ekin penaltietan eman zuen amore). Baina Aldayk lortutako gola nahikoa izan zen eibartarrentzat partidua bereganatzeko; horri gehitzen badiogu eibartarrek berdinduta zegoen Arenasek Reala C-rekin galdu zuela, armaginek hiru puntuko koltxoia dute egun bigarrenarekiko.

## Udaberri Saria esprintean erabaki zen

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako 47. Udaberri Sarian 134 txirrindularik hartu zuten parte, 22 taldetan banatuta, eta, 80 kilometro bete ondoren, 25 lagunez osatutako tropel txikitik irten zen irabazlea. F2 Informática taldeko Lier Maguregi izan zen azkarrena, ordubete, 52 minutu eta 41 segun-

doko denborarekin, bataz besteko 42'60 kilometroko abiaduraz osatutako lasterketan.

Pare bat erorketa izan zituen Udaberri Sariak: Deban izan zen lehenengoa (horko txirrindulari bat Mendarora eraman zuten) eta Eibarren sartzerakoan bigarrena, ondorio larrik gabe.



Junior mailako probaren amaiera.

## Binakako txapelketa eta Altuna jaialdi bereko kartelean

Domekan Astelenak jaialdi bikaina hartuko du, tartean partidu nagusian binakako txapelketaren finalerdietako bat jokoan izango dela. Hor indarrak neurtuko dituzte txapelketa horretako lehen jardunaldian galtzaile izan ziren bikoteek (Laso-Iztueta vs Peña-Albisu), baina aurretik Jokin Altuna gaur egungo buruz-buruko txapeladuna ere gurean izango da, binakako lehiaketatik kanpoan geratu eta gero. Gabirondo izango du lagun gerriko gorridunak, Jakak eta Lizeagak osatutako bikotearen aurrean.



Astelena frontoiak asteburu betea izango du.

### Afizionatuak

Profesionalen mailako jaialditik aparte, gaur arratsalde, 18:00etatik aurrera, Udaberri Torneoko hiru partidu hartuko ditu Astelenak, Deportiboko ordezkariekin. Eta bihar goizean Eibarko Pala Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatuko da goizeko 09:00etan hasita; etzi beste partidu bat izango da 11:00etan.



Garaipena gertu izan zuten Urbatekoek Kanaria Handian jokaturako partiduan.

## 2. Maila Nazionalari eusteko puntuak jokoan izango ditu Urbatek bihar Donostian

Aurreko asteburuan partidu bikaina jokatu ondoren egindako pare bat akatsek berriro ere saririk gabe laga zuen Davide Cerchik zuzentzen duen taldea. 2. Maila Nazionalako partidu horretan Las Palmasek 9-8 irabazi zien azkenean eibartarrei eta, orain, zapatu honetan Donostiako Paco Yoldi igerilekuan Tres Cantosen aurka jokatu beharreko partiduko puntuak beharrezkoak

izango dituzte mailari eusteko ahalginean. Euskal Herriko 1. Mailako Ligan jokatzeko duen senior mailako Urbateko bigarren taldeak, bestalde, partidu handia jokatu zuen Orbea kiroldegian eta erraz irabazi zion Urgara-Txingudiri, 19-5eko markagailuak erakusten duen bezala. Urrats handia eman dute eibartarrek arrisku eremutik gutziz aldentzeko.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

Deportivo - SD EIBAR (etzi, 17:30)

#### Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Almeria (gaur, 19:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Gernika - EIBAR B (etzi, 17:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Zaragoza - EIBAR B (etzi, 12:00)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Lagun Onak (bihar, 15:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Hernani (etzi, 17:45)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

Soraluze - URKI (etzi, 16:30)

EIBARTARRAK - Ikasberri (bihar, 18:00)

#### Erregionaleko 1. Maila

Urola B - URKI B (bihar, 16:00)

#### Ohorezko Jubenil Maila

Valvanera - SD EIBAR (etzi, 17:00)

#### Jubenilen Nazional Liga

EIBAR B - Leioa (bihar, 12:30)

### FUTBOL-ZALETUA

• Limpieza Rueda - G. Garcia (bihar, 09:00)

• Baserri - Adahi Etxegi (bihar, 10:30)

• Xania Taberna - BOJ (etzi, 09:00)

• Bar Marem - Malape Taberna (etzi, 10:30)

### ARETO-FUTBOLA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Gamon-Auzi - EIBARTARRAK (gaur, 20:30)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Camargo - MEK EIBAR (bihar, 19:00)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Loyola (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

San Adrian - MEK EIBAR B (etzi, 11:30)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Fagor Aloña M. - MEK EIBAR (bihar, 18:00)

#### Gizonezkoen Jubenilen Euskadiko Liga

MEK EIBAR - Bidasoa Irun (bihar, 09:45)

### ERRUGBIA

#### Gizonezkoen Euskadiko Liga

EIBAR - Hernani

### SASKIBALOIA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ARTES. JUANTXO - Debasket (bihar, 14:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Zast Oak (bihar, 16:30)

### WATERPOLOA

#### Gizonezkoen 2. Nazional Maila

URBAT - Tres Cantos (bihar, 20:15)

### BILLAR

#### 2. Nazional Maila

CASINO - Regatas Santander (bihar, 11:30)

# XLVIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK



**martxoak 7 (barixakua)**



**“Ni flores, ni funeral,  
ni cenizas, ni tantán”**

La Dramática Errante (Bizkaia)

TRAGIKOMEDIA / 90'

**Antzeizleak:** ANE PIKAZA, AITOR BOROBIA...

**Zuzendaria:** MARIA GOIRICELAIA

Bidaia bat, bizitzera alaitasunez aurre egitera eta bizitzaren amaiera nolakoa izango den galdetzeraz bultzatzen gaituena. Norbere mugak gainditzeari, samurtasunari eta gizatasunari buruzko istorioa. Mundu hau minoz eta sufrimenduz utzi zuten guzterei egindako kantu bat ere bada.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 9 (domeka)**



**“Heisenberg”**

Tanttaka Teatroa (Gipuzkoa)

KOMEDIA / 80'

**Antzeizleak:** RAMON AGIRRE, NAIARA ARNEDO

**Zuzendaria:** FERNANDO BERNUES

Topaketa bat izango da bietz biltza aldatuko dien jolas zoragarri baten hasiera. Ciare Burns 42 urteko emakumeak eta Alex Priest 72ko gizonak Londresko geltoki batean ezagutuko dute elkar. Simon Stephensen lanak erakutsi nahi digu zein ziurgabea eta komikoa izan daitekeen gizakion arteko konexioa, erreali “absurdo” baten ondorioz.

**Uni-Eibar (19:00)**

**martxoak 10 (astelehena)**



**“Miñan”**

Artedrama (Bizkaia)

DRAMA / 90'

**Antzeizleak:** ANDER LIPUS, SAMBOU DIABY,

EIHARA FERNANDEZ DE LARREA, MIKEL KAYE

**Zuzendaria:** ANDER LIPUS

Ibrahimaren historiak ezin hobeki laburbiltzen du migratzaileen odisea. Miñan (anaiatxoak) Ibrahim Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsonan kontatua. Afrikatik Europarako ibilbidean minak, egarriak eta goseak sorturiko sufrimendua ezagutu zuen bizitzako zeharkaldian.

**Coliseo (19:00)**

**martxoak 12 (eguztzena)**



**“Iribarne”**

ButacaZero y Teatro de Ribadavia (Galizia)

KOMEDIA BUFOA / 180'

**Antzeizleak:** MONICA GARCIA, XURXO CORTAZAR,

ANDU OUTUMURO, LIDIA VEIGA, JORGE DE ARCOS...

**Zuzendaria:** XAVIER CASTIÑEIRA

Nola iritsi garen honaino ulertzeko ahailegin lotsagabea. Testua Esther F. de Carrodegus “Supernormales” arrakastatsuen egilearena da. Hala badirudi ere, hau ez da Manuel Fragari buruzko biopic bat, “ez zelako obra bakarrean kabitzen!”. Hiru ordukoa izanda, atsedenaz izango du lanak.

**Coliseo (19:00)**



## Tanttaka Teatroaren "Heisenberg" ikusi ahal izango da domekan Uni-Eibarren

Euskarazko antzerki-lan hori, gainera, Udal Euskaltegiak aurten betetzen duen 40. urteurrena ospatzeko antolatuko diren jarduera eta ekintzen arteko lehenengoa besterik ez da izango. Emankizunaz Uni-Eibarren gozatu ahal izango da etzi, 19:00etatik aurrera.

Iazko abenduaren 3an Bilboko Arriagan estreinatu zen lanean antzerkiaren esparruan ibilbide luzea egin duten Naiara Arnedo eta Ramon Agirre donostiarrak izango ditugu protagonista, Fernando Bernuesen zuzendaritzapean. Testu originala Simon Stephensen da, helburutzat duena gizakion arteko konexioa zein "ziurgabea eta komikoa" izan daitekeen erakustea. Abiapuntu modura, Londreseko Saint Pancras geltokian

emakumeak gizonezkoari garondan emango dion musua dago, hilda dagoen bere aitarekin nahastu eta "eroaldi absurdoak" bultzatuta. Horrelako irtenaldiak, "gaizkiulertuak" eta gertakariak dira sei bat astez luzatzen den tramaren motorrak eta barrearen sortzaileak.

"Heisenberg"-en "gutxiago gehiago da" eskemari jarraitu diote oholtzaratzeko orduan. "Dekorazio minimoarekin", apenas bi aulki modu batera edo bestera jarriak,

eta jantziteria aldetik adorno edo elementu txikiekin irudikatzen dute non dauden. Obra hain minimalista izateak pisu handiagoa ematen dio bi aktoreen interpretazioari, are gehiago mugimendua ere txikia denean; interpreteek dioten bezala, "zineko plano motza da, jendeari ahalik eta keinu gehien emanez". Lanaren izenburua ez da ausazko erabakia izan eta mekanika kuantikoko fenomenoaren oinarri bera du, hau da, "ustekabeak eta ziurgabetasuna". Ustekabekoa eta kasik absurdoa den protagonisten enkontruak bien bizitzak zelan aldatuko dituen ikusteko aukera paregabea eskaintzen digu euskarazko lanak.



Ramon Agirre Alex Priest da.



Fernando Bernuesek Simon Stephensen lana bertsionatu du.



Naiara Arnedo Ciare Burns da.

# “Demaseko aukera izan da niretzat, ‘Miñan’-en antzeko egoerak oso gertutik bizi izan ditut-eta”

MIKEL KAYE • Aktorea



Ibrahima Baldek Gineatik Europara egindako bidea Amets Arzallusi ahoz kontatu eta hark ‘Miñan’ liburuan jaso zuen. Nobelak bere bidea egin zuen milaka migratzailek bizi duten odisea irakurleen artean zabalduz, eta gero istorioak ibilbide berri bat hasi zuen antzezlan bihurtu arte. Obrak urrian ikusi zuen argia Bilboko Arriaga jauregian eta astelehenean iritsiko da gurerara.

**A**rte drama arte eszenikoen plataformak taularatu du Miñan, New Yorken (AEB) jaio eta Ziburun hazi den Timberlake Wertebakerrek liburua antzerkirako egokituta, eta Ander Lipusek zuzenduta. Sambou Diaby aktorea da protagonista, Lipus bera, Eihara Irazusta eta Mikel Kaye aktoreekin batera. Azken horrek, ermuarra izanik, oso lotura estua du Eibarrekin eta atsegin handiz jaso gaitu bere jaioterrian.

**Sambou Diaby sartzen da Ibrahima Balderen azalean eta beste aktoreek hainbat paper egiten dituzue. Nola moldatzen zarete hainbeste pertsonaia antzezteko?**

Antzezlana ia-ia monologo bat da. Sambouk hartzen du Ibrahimaren papera eta publikoarekin hitz egiten du. Hori narrazioaren plano ia izango litzateke, baina beste plano batean ekintza dago eta Lipusek, Eiharak eta hirurok jokatzeko dugu hor. Hau da, Sambouk kontatzen duena berarekin batera gorpuzten dugu eta eszena ezberdinak sortzen ditugu. Gutako bakoitzak 14-15 pertsonaia egin behar ditugu eta teloi atzean ahal den moduan ibiltzen gara aldatzen (barreak).

**Erronka izango da pertsonaiez horrenbeste aldatzea. Alde handia dago pertsonaia batetik bestera?**

Antzezlan osoa da erronka, baina baita pertsonaia ezberdinak antzezteko ere. Askok gustatzen zait pertsonaia ezberdinekin jokatzeko eta bai, oso ezberdinak dira euren artean. Adibidez, momentu batean Miñanen papera egiten dut, Ibrahimaren anaiarena (Miñanek anai edo arreba txikia esan nahi du Ibrahimaren hizkuntzan), baina aurreko eszenan osaba zaharrarena egiten dut. **Antzezlanak Ibrahimak Afrikatik Europara egindako bidea kontatzen du, baina nolako kontakizuna egiten da zehazki?**

Ibrahimari benetan gertatu zitzaien historia azaltzen da, baina orokorrean jende askori pasatu izan zaiona da. Beti oso antzeko istorioak izaten dira. Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetatik Europarako ibilbidean, ikusten da migratzaile asko Afrikan bertan gelditzen direla bidean, nahiz eta guk buruan Mediterraneoan gurutzatzerakoan pasatzen dutena eduki (hori ere oso arriskutsua izanik). Bidaiaren fase ezberdinetan Ibrahimari gertatu zaizkion gauzak kontatzen dira, gauza txarrak gehienak, baina horietan laguntasun istorioak eta gauza politak ere ikusten dira.

**Benetan gertatu den istorioa izanik eta beste askok antzeko egoerak bizi dituztela jakinda, nola sentitzen zara hori antzeztekoan?**





Ermuko aktorea Coliseoko eszenatokira igoko da astelehenean 'Miñan' antzezlana egiteko. EKHI BELAR

Niretzat demaseko aukera izan da, oso gertutik bizi izan dudan egoera izan baita. Nik neuk ez dut bizi izan, baina aitarengandik edo familiako beste askorengandik entzundako istorioak izan dira, berdin-berdinak. Antzeko egoerak bizi izan dituzten lagun asko ditut eta etxetik pasa direnek istorio berdinak kontatu dizkigute. Beraz, aukera izan da ezagutzen nuen istorio bati aitormena egiteko. Beti gustatu izan zait gai hau pelikuletan ikustea eta nik neuk antzezteko aukera edukitzea demaseko aukera izan da. Bestalde, uste dut Sambouk egiten duen paperak pertsonaia gehiago barneratzen lagatzen diola, istorio osoan zehar ibilbidea egiten duelako eta emozionalki beste inplikazio bat eskatzen diolako. Bestean kasuan ez dugu horretarako tarterik. Eszenatokian sartzen gara, esaldi bat esaten dugu, irten egiten gara, aldatzen gara eta horrela gabiltza. Beraz, orokortasunean badaukat inplikazioa istorioarekiko, baina antzezten nagoenean askoz ere mekanikoagoa da eta egoera bakoitzean antzeztera sartzen naiz, jokoan sartzen naiz, baina segituan irten behar izaten naiz. Polita izaten da pertsonaia guztiz murgiltzea lortzen duzunean.

**Ibrahimak bizitakoa milaka lagunek bizi izan dute eta, askotan, zifrak besterik ez dira bihurtzen guretzat. Garrantzitsua da horrelako kontakizunen bitartez zifra horien atzean pertsonak daudela erakustea?**


Zoritzarrez oso momentu egokian etorri den istorioa da hau. Europarako migrazioa orain dela hamarkada batzuk hasi zen, baina azkenengo urteetan gora egin du. Miñanen ez dugu kontatzen horren arrazoiak zeintzuk diren, ez dugu esaten Afrikako herrialde hauen pobretzea neurri handi batean Europako ongizate estatuari eusteko egin den espoliazioaren ondorioz gertatu dela. Gai horrekiko bi gauza dira garrantzitsuak: batetik, gaiaren inguruan jasotzen ditugun albisteak, datuak eta abarrak; eta bestetik, subjektuak eta izenak jartzea. Adibidez, Gazan gertatzen denaren inguruan datuak ikusten ditugu bakarrik eta ia-ia horietara ohitu gara. Hasieran, haur bat anaiaren eskuetan ikusten genuen eta hunkitu egiten ginen, baina orain hainbeste dira, ahaztu egin ditugula. Kasu honetan berdin gertatzen da eta garrantzitsua da horrelako historiak kontatzea, jendeari iristen zaizkiolako. Gutxienez kontzientzia edukitzea eta ez ahaztea zifra horiek benetako zerbait direla.

ELKARRIZKETA OSOA  
ETA BIDEOA**Ibrahimarekin eta Ametsekin elkarlanean aritu zarete liburua antzerkira eramateko?**

Antzezlanean demaseko taldea izan dugu zorionez. Amets bai izan dugu prozesu osoan zehar, baina Ibrahim ez. Madrilen bizi da gaur egun eta ez berak ez Amets ez zuten nahi gehiegi inplikatzeko horretan, bere istorioa delako bertan kontaktzen dena. Arriaga antzokian egin genuen estreinaldira etorri zen, baina ez zuen antzezlan oso ikusi, azkenengo 15 minutuak baizik. Gero eszenatokira igo zen eta oso momentu hunkigarria izan zen. Antzerkirako egokitzapena Timberlake Wertebakerrek idatzi du. Ziburukoa bada ere, Londresen bizi izan da ia bizitza guztian eta gero Ipar Euskal Herrira itzuli zen euskara berriz ikastera, eta Ametsekin harremana egin zuen. 'Miñan'-en ingelesezko itzulpena berak idatzi zuen eta bere asmoa antzezlan Londresen egitea zen. Pandemia tarteko, asmoa ez zen gauzatu eta Lipusek hemen egitea erabaki zuen (uste dut Londresen datarren hilabetearen estreinatuko dela beste antzerki-talde batekin). Amets proiektuari baiezkoa eman zion, Timberlake eta Artedrama ondo ezagutzen zituen-eta. Izan ere, Amets asko zaindu nahi zuen Ibrahimaren historia, ez zuen merkatuaren dinamikan sartu nahi, istorioa zaintzatik edo ezinegon batetik kontaktzea nahi zuen. Beraz, Amets gurekin aritu da, entseguetara eta egonaldietara etorri izan da, hizkuntzaren inguruan mila ohar ematen zizkigun (Ibrahimaren kontatzeko era islatu zuen liburua, Ibrahimak frantsesez kontatuta eta berak euskaraz jarrita)...

**Artedramak asko zaintzen ditu antzezlanak eta prozesuak. Nolako lanketa-prozesua izan da?**

Zuzendaritzan Lipus ibili da, Manex Fuchs aktoreen zuzendaritzan, Philippe Ducou izan da bigarren zuzendaria eta koreografoa... Hasieran ez nuen sinesten ere bertan ari nintzenik. Karreran sartu aurretik ez nuen Artedrama ezagutzen, baina bertan sartu eta gutxira 'Zaldi urdina' ikusi nuen Ermuan. Geroztik Artedrama gehiago jarraitu dut eta euskal antzer-



kiaz berba egiten denean ezinbesteko konpainia da. Lipus tailer batean ezagutu nuen eta idatzi zidanean ez nuen sinesten. Gero, demaseko taldearekin egin dugu lan, asko maite dugu elkar.

**Urrian estreinatu zenuten eta harrezkero hainbat emanaldi eskaini dituzue. Antzezlanak nolako harrera izan du?**

Ezin hobea. Estreinatu aurretik emanaldi dezente genituen lotuta eta horrek segurtasuna eman dezake edo kontrara, demaseko urduritasuna genuelako antzezlanaren inguruan sortu zen espektatibarengatik. Zorionez oso harrera ona eduki du. 71 saio eskaini ditugu, antzokiak bete egin dira (tamalez antzerkian oso ohikoa ez dena) eta guretzat plazerra ari da izaten. Agian gazteok gaizki ohitzen ari gara, baina zoragarria dihardu izaten. Gainera, gazte asko etorri izan da ikustera, ez dakit eskolan Miñan irakurri izan dutelako edo zergatik den, baina guretzat plazerra da gure adineko jendea datorrela ikustea, Lipus kenduta besteok 22-25 urte baititugu. Emankizunen amaieran ikusle asko gerturatzen zaizkigu eurei Miñanek zer eragiten dien kontatzera edo zergatik duten begirunea gai horrekiko... Oso une polita izaten da.

**Lore, Landare eta Zuhaitz XV. Azoka**

Ordua: 10:00 - 14:30  
11:30 Haurrentzako tailerrak

**Martxoak 15**

**EIBAR** **deKOLORE** **Eibarko Urkizu Plazan**

**zuhaitz eguna EIBAR**  
martxoak 15

Zatoz bertako zuhaitzak landatzera!

**PLAZA MUGATUAK**  
Ezinbestekoa da izena ematea (martxoaren 13ra arte) [info@lurgala.org](mailto:info@lurgala.org) eta baita plazaren onarpena jasotzea ere.  
> Adierazi parte-hartzaileen izen-abizenak, adinak, telefono bat (ezustekoetarako) eta aukeratutako topagunea.

**08:30 - 1. Topagunea:**  
Eibarko Klub Deportiboa (Toribio Etxebarria, 16)  
> Oinez igotzeko ibilbidea: Jardifietak - Sakun - Estixaiko parkea - Iturburu - Izua (4,5 km - erraza)

**10:00 - 2. Topagunea:**  
Urkoko igoyerako aparkalekuan, Izuan

**EIBAR** **lurgala** **Eibarko Urkizu Plazan**

**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*

**ek!**

Zure publizitatea herriko aldizkarian

**688 621 535**  
[publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus)

**DEPOR TABERNA**  
T. Etxebarria, 16 943 84 49 12  
[deportaberna@deporeibar.com](mailto:deportaberna@deporeibar.com)

- **EGUNEKO MENUA** asteleheneratik ostiralera 13:00etatik 15:00etara
- **ASTE BURUETAN** razioak, otartekoak, plater konbinatuak...
- **GOSARIAK** egunero
- **TALDEENTZAKO** menuak egiten dira



## Historiari buruzko hitzaldiak Igor Goñi, Iosu Txueka eta Javi Bucés adituen eskutik

Ego Ibarra batzordeak hainbat hitzaldi antolatu ditu martxorako, herriko ikastetxeekin lankidetzan. Berez DBH 4 eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako hitzaldiak dira, “eta gaia ikastetxeek aukeratzen dute gehienetan, helburua ikasgaien gaitegiarekin erlazioa izatea baita”, adierazi dute Ego Ibaratik. Hala ere, interesa duten herritarrek ere gerturatzeko aukera dute, aldez aurretik abisatuta. Horretarako egoibarra@eibar.eus helbidera mezua bidali beharko dute. Hilabete hone-tan lau saio egingo dituzte: martxoaren 13an, 10:45ean La Salle Azitainen, Aranzadi Zientzia Elkarteak Javi Bucés Cabellok *Trantsizio garaia: 1977ko amnistia legea; bortizkeria politikoaren inpaktua eta gatazka sozialak* izenburukoa emango du; Igor Goñi Mendizabalek (Euskal Herriko Unibertsitatea) *Lehen Mundu Gerra eta armagintza. Industria birmoldaketa* izenburuari jarraituko dio bi egunetan, martxoaren 17an eta 24an, 12:00etan Eibarko Institutuan; eta Iosu Txueka Intxustak (Euskal Herriko Unibertsitatea) *Langileen mugimendua eta nazionalismoa Euskal Herrian (1880-1923)* izenburukoa emango du martxoaren 28an, udaletxean.

## Ur taldearen kontzertua Zai-zoin

Bihar 20:30ean hasiko da Ur taldearen kontzertua, Ez Dok Zai-zoi tabernan (alderantzizko sarrera). Antolatzailleen berbetan, “Azkoitia eta Eibar artean sortutako hirukoteak estilo desberdin askotan murgilduko gaitu, besteak beste rock, funk, disko...”.



## Debarreneko Orfeoiaren kontzertua bihar eguerdian Elgoibarren

Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen Debarreneko Orfeoiak kontzertua emango du bihar Elgoibarren. Haizea emakumeen kultur elkarteak antolatu du kantaldia, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira prestatu duten programazioaren baitan. Kontzertua Elgoibarko Kultur Etxean izango da, 12:00etatik 12:45era, eta zuzendariak aurreratu digunez “hainbat konpositore garaikideren lanak interpretatuko ditugu, hainbat hizkuntzatan, eta batzuk euskaraz izango dira. Hori dela eta, jendea kontzertura joatera animatu nahi dugu, gurekin batera kantatzeko”.



## Barixakuak Jolasian auzoetara itzuliko da gaur

Txaltxa Zelai inguruak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. 17:00etatik 18:00etara jolas dibertigarrietan parte hartzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren haurrek. Hurrengo barixakuan, martxoak 14, Torrekuian izango dira, eta ikasturteko azkeneko jolasak Urkizuko parkera itzuliko dira berriro, hilaren 21ean.



## Lide Hernandoren 'Izotz ura' martxoko irakurketa klubean

Idazlearekin Harixa Emoten irakurle taldearen saioa egingo da eguaztenean, 19:00etan Portalean (Batzartoki 1-2). Lide Hernando izango da idazle gonbidatua, eta *Izotz ura* liburuari buruz berba egingo du. Liher musika taldeko abeslari eta gitarristak idatzi duen lehen nobela da hau. Beti bezala, saioan parte hartzen duten irakurleek lanari buruzko galderak eta komentarioak egiteko aukera izango dute. Betiko lez, saioa Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du. Jarduera hau Eibarko Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek elkarlanean antolatzen dute eta dohainik da.

## Eibarko artisten lanak Donostian ikusgai

Donostian erakusketa inauguratuko dute gaur Eibarko Artisten Elkartekoek, hiriburuan dagoen Gipuzkoako Artisten Elkartean (Aldapeta kaleko 20. zenbakian). Bi elkarteen arteko elkartrukea izango da, aurrerago Donostiko artistek beraien lanak Topalekuan ikusgai ipiniko dituzte eta. Erakusketan parte hartzen duten eibartarren artean Perez Güenaga anaiak, Bego Dominguez, Cristina Azpiri, Eli Eguren, Santi Entrena, Mauri Martin, Javier Aliende, Maite Zangitu, Pepi Correa, J.A. Gimenez, Angel de la Torre, Arrate Osoro, J. Vicente Alvarez, Luis Lopez Urbano, Fdo. Garcia, Mikel Estandia, J.A. Larrañaga, Maite Arriaga, Esteban Oroz, Jon Idigoras, Emilio Guerrero, M<sup>a</sup> Carmen Piriz eta Javi Martin Lapeyra daude.



## Martxorako eskaintza zabala Ipuruako Merkatu Plazan

Ipuruako Merkatu Plazaren martxoko programazioaren baitan, mitologia klasikoari buruzko saioak antolatuko dituzte datozen bi barixakuetarako (martxoaren 14rako eta 21erako). Bi egunetan Miguel Arroitajaregi Errasti irakasle-ohiak egingo du berba, 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 15ean, berriz, Nuria Rodriguez Ibarrek luzaketa-tailerra eskainiko du, doan. Bi txanda egongo dira: lehena 09:30ean, eta bigarrena 10:30ean. Taldeak antolatu ahal izateko aurretik izena eman beharko da, 672275578 telefono zenbakira deituta, edo nuriarodriguezibarra@gmail.com helbidera mezua idatziz. Eta egun berean (martxoak 15) *Komunitatean bizi* izenburuko saioa emango dute Maushaus arkitektura laborategikoek, 17:30ean. Parte hartu nahi duenak 614 13 11 74 telefono zenbakira deituta eman dezake izena.


## Pailazoen ikuskizunerako sarrerak gaur salduko dituzte

Porrotxeta Marimotots pailazoak etorriko dira Eibarrean apirilaren 12an, *Ostirala iritsi da* ikuskizunarekin, Jaixak Herrixak Herrixandakoren eskutik. Bi saio eskainiko dituzte Coliseo antzokian, etxeko txikienezako eta ez hain txikienezako. Lehena 16:00etan izango da, eta bigarrena 18:00etan. JHH-tik azaldu dutenez, sarrerak gaur jarriko dituzte salgai, Untzagan, 16:00etatik aurrera. Gainera, martxoaren 12an Deporren eskuratu ahal izango dira, 18:00etatik aurrera. Sarrerak 10 euro balio ditu, eta eskudirutan ordaindu beharko da.



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

	8		7	9		
6				4		3
	1	3		6		
		9	8			
	5	1	2		3	8
				7	3	
			3	6	4	
4		6				1
		7	5		3	





soluzioa

**S U D O K U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

			7	6		
			1		3	
		6	4	2	9	
	2	4		7	3	5
1				8		
						6
	9	7	5		2	8
		6	7	2	9	
	7		1			
		9	3			

soluzioa



**L A B I R I N T O A**

# Martxoak 7 - 13

## BARIXAKUA 7

**BARIXAKUAK JOLASIAN**  
**17:00/18:00** 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak, euskaraz, begiraleen laguntzarekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Doan. Txaltxa Zelai.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantan" (La Dramatica Errante). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## ZAPATUA 8

### ZUMBATOI MOREA

**11:00/12:15** Zumbatoi Morea. Errebal Plazia.

### EMAKUMEAREN EGUNA

**12:00** Eztabaida feminista: "Biolentzia areagotzen ari da, zer dugu esateko?".

**14:30** Bazkari autogestionatua.

**19:00** Manifestazioa: "Antifaxismoa feminista izango da edo ez da izango". Untzagatik. Marikoteka, Eibarko kaleetan, manifestazioa amaitzean. Antolatzailea: Matraka talde feminista.

### LUDOTEKA

**16:30/20:30** Mahai-jolasak, Odissea elkartearen eskutik. Doan. Errebal Plazia.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

### MUSIKA KONTZERTUA

**20:30** Ur taldea. Alderantzizko sarrera. Ez Dok Zai-zoi taberna.

## DOMEKA 9

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45** Ipurua kiroldegia.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Heisenberg" (Tanttaka Teatroa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

## ASTELEHENA 10

### BISITA GIDATUA

**18:00** "Bizitza onerako alternatibak" erakusketara bisita. Martxoaren 8ko lantaldeak antolatuta. Andretxea.

### KANTU SAIO IREKIA

**19:00** Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkarte.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Miñan" (Artedrama). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## MARTITZENA 11

### TAILERRA

**09:00/13:00** Sormen tailerra emakumeentzat, Maite Arriaga Arrizabalagarekin. Izen-ematea Andretxean. Martxoaren 8ko lantaldeak antolatuta. Arrate Kultur Elkarte (Topaleku).

## SOLASALDIA

**12:00** Berriketan Ikasi: "Qué hacer ante las fake news". Sarrera libre. Ikasten elkarteak antolatuta. Portalea.

### BIDEO-FORUMA

**18:00** Emakumeen Istorioak: Nina Simone. Dinamizatzailea: Shakti Olaizola. Doan. Martxoaren 8ko lantaldeak antolatuta. Andretxea.

### BATZARRA

**18:30** Gure Esku-rena, ekainaren 7an Bilbon egingo den ekitaldira begira, herri-batzordea aktibatzeko. Arrate Kultur Elkarte.

## EGUAZTENA 12

### TAILERRA

**09:00/13:00** Sormen-tailerra emakumeentzat, Maite Arriaga Arrizabalagarekin. Izen-ematea Andretxean. Martxoaren 8ko lantaldeak antolatuta. Arrate Kultur Elkarte (Topaleku).

### MUSIKA

**17:00** Untzaga gizarte zentroko abesbatzaren eta gitarra taldearen emanaldia. San Andres nagusien egoitza.

### HITZALDIA

**18:00** "Lugares sagrados". Sarrera libre. Untzaga gizarte zentroa.

### LITERATURA

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Lide Hernando Muñozen "Izotz ura". Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegi. Portalea (1 batzartokia).

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "Iribarne" Butaca Zero). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## EGUENA 13

### HITZALDIA

**10:00** "Magnicidios", Antonio Riveraren eskutik. Sarrera libre. Ikasten elkarteak antolatuta. Armeria Eskola.

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako plaza.

### TAILERRA

**18:30/20:00** Clown jarduerak, helduentzat. Doan. Ipuruko merkatu plaza.

### MENDI JARDUNALDIAK

**19:00** Mikel Lizarralde eibartarraren "Zazpi" pelikularen emanaldia, eta hitzaldia, zuzendariarekin. Doan. Coliseo.

## FRAKUSKETAK

### Martxoaren 23ra arte:

- "Kokapena denbora errealean", ANE XIXI eta VIVIANE STRAUB artistak. (Portalea).

### Martxoaren 30era arte:

- "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

### Apirilaren 29ra arte:

- "BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK". (Andretxea).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **8an:** 19:45, 22:30
- **9an:** 20:00

**“Mi única familia”**  
 DRAMA



2024/Erresuma Batua /97'  
 Zuzendaria: Mike Leigh  
 Aktoreak: Marianne Jean-Baptiste,  
 Michele Austin, David Webber  
**Familia /Arazo pertsonalak**

## 2 ARETOA

- **8an:** 16:30, 21:00
- **9an:** 16:00, 20:00
- **10ean:** 19:30

**“The Brutalist”**  
 DRAMA



2024/AEB/215'  
 Zuzendaria: Brady Corbet  
 Aktoreak: Adrien Brody,  
 Felicity Jones, Guy Pearce  
**Inmigrazioa /Arkitektura**

## ANTZOKIA

- **8an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **9an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **10ean:** 19:30 (1 Aretoa)

**“El secreto del orfebre”**  
 DRAMA



2025/Espainia /99'  
 Zuzendaria: Olga Osorio  
 Aktoreak: Mario Casas,  
 Michelle Jenner, Zoe Bonafonte  
**Erromantzea /Iraganera buelta**

## ANTZOKIA

- **8an:** 17:00
- **9an:** 17:00

**“Norbert”**  
 ANIMAZIOA



2024/Espainia /75'  
 Zuzendaria: Jose Corral Llorente  
**Komedia /Espioitza**



<p>●●●</p> <p><b>FUNEUSKADI</b></p> <p>Funeraria Mugica</p>	<p>●●●</p> <p><b>FUNERARIA MUGICA</b></p> <p>Funeraria</p>
<p>●●●</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>●●●</p> <p>TANATORIO FUNERARIO EGOIBAR</p>
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b></p> <p><b>www.funeuskadi.com</b></p>	
<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xizillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ernuako bulegoa:</b> Marquis de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao                  Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

**5. URTEURRENA**  
 2020/03/07

**“Geurian egunero, CLARITA”**

MAITE ZAITUGU  
 ETXEROKAK  
 eta LAGUNAK



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **ELIANA**, domekan urtiak beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANDER**, zure 5. urtebetetzian. Musu eta besarkada erraldoi bat famelixaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, **IBAI!** Bixar 7 urte beteko dozuz eta, mutil haundi!! Musu pillaaaa bat famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!!



Zorionak, aitatxo/aitita **JOXE**, astelehenian urtiak egingo dozuz-eta. Jarraitu halako majo! Pilla bat maite zaittugu!!



Zorionak, **ANDER**, mutil haundi! Hillaren 5ian 8 urte bete zenduaz eta! Famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, **MALEN** Gisasola! Bixar 9 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **VIGO**, hillaren 5ian 2 urtetxo egin zenduaz eta. Aitxixta-amama, guraso eta famelixako guztien partez.



Zorionak, **LAIA**, hillaren 5ian 10 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Beti eskuzabal, beti goxo. Zorionak eta urte on askotarako, **AMAMA!** Musu haundi bat zure biloba Ander, Jon, Luken eta Liberen partez.



Zorionak, **NORA!** Etzi urtiak beteko dozuz eta. Zein haundixa zoiazen egiten. Musu bat asko maite zaittuen famelixaren partez.

## Felisa Bolinaga Askasibar

**2. URTEURRENA**  
2023/03/06

**AMAMA:** zenbat botatzen zaittugun faltan! Baitta zure frituak be! Asteburuan marianito bat hartuko dogu zure omenez. Gora kopak!!!

**MAITE ZAITUGU**  
- ETXEKOAK -

## Joseba Argintxona Asla

**1. URTEURRENA**  
2024/03/05

"Urtebete zu gabe, baina beti egongo zara etxekoan bihotzean; batez ere, Iker, Markel eta Mirenengan"

**BETI GUREKIN, SUPERAITXITXA**

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Logela bat hartuko nuke Eibarren edo inguruan. Gehienez 320 euro ordaintzeko. 627122105.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888 eta 626528738.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxea garbitzeko. Esperientzia. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 637990403.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 604249891.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 633365036.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 639107272.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612284265.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631354479.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 624978151.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez edo ospitalean ere) eta etxeak edo obrak garbitzeko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta jatetxeetan jarduteko. 631805746.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 603458623.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko (arreta sozio-sanitario ziurtagiria). 624828670.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, jatetxean jarduteko eta garbiketarak egiteko. 604205271.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 653075865.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 646778839.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, eta baita maskotak ere. 602626391.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxean laguntzeko. Orduka. Esperientzia. 680526228. Nuri.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Erreferentziak. 632288100.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta gauzez ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta gauzez ere. 642431753.

## 4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako. Jardun partziala, adostu beharrekoa. Bidali CV: hortz-klinika.4@gmail.com
- Emakumea behar da adin txikiko menpekoa zaintzeko. Sozio-sanitario titulua eta ementioarekin. Bidali CV: empleoeibar@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

# gremioen gida



## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ELEKTRIZITATEA

**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko argentziak  
610 532 922 www.theleceer.com

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@crystalerrijaocha.com  
Tfnoa eta faxa: 943 203 993

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko  
AROTZEGIA

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta beheak  
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeez  
goza dezazun  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa: 943-120108  
www.irazabal.net

## PLAGEN AURKA

**PLAGANATURA**  
PLAGEN AURKARI ZERBITZUA  
www.plaganatura.com  
Tfnoa: 943 203 700  
ELGOIBAR




943-206776


M8

Emakumeen  
Nazioarteko Eguna

# #Ni Feminista Naiz

Feminismoa zurekin bat



araba  élava

Basque Country - Euzkadi

Bizkaia

 GIPUZKOA

Basque Country - Gipuzkoa

 EUEL

Basque Country - Euzko Legebiltzaria

***“feministok  
zutunik”***



**martxoak 8**

**ehbildu**